

Lekitto-belarra eta sorkia

UDAZKENEROKO dolarez dolareko ibileran, aurten geldialdi berri bat egitea egokitu zait. Ustekabean topatu dut dolarea. Txakolin dolarea. Lekeitiora gonbidatu naute, baratze batera. Gezurra badirudi ere, lurrekotik lotu naute Lekeitiora, ez itsasokotik.

Garai batean txakolina erruz egiten zen Lekeition, milaka litro asko eta asko. Egun oso gutxi egiten da, baina txakolin polita. Nik Itziar Goienetxeak *Pipas* izenarekin egiten duena dastatu dut: ederra!

Usotegin ezagutu nuen txakolin hori. Usotegi, herriko sarreran dagoen baratze eder baten izena da. Pendiz bizian, harlanduzko harresiz inguratuta, taulen erosoak izateko mailakatutako baratze-
ra, beheko kaleko sarrera hanpatsu batetik erdiz erdi gora egiten duen eskailera zabal batetik igo-tzen da. Goian, usategi handi bat, Calabria edo Peloponeso gogora ekartzen duten bere onetik ateratako altzifre (*Cupressus sempervirens*) hesi dotore bat zenaren hondarrek babestua. Toki ikusgarria, eguzki begi egutera ezin ibargia-
goa. Atlantikora ekarritako Mediterraneo puskatxo bat.

Utzia ez, utzie-tsia baino gehia-go abandonatua zegoen baratze hori herri baratze bihurtu dute. Lekitto-belarra (barrabasa edo txomin-belarra, *Oxalis acetosella*) deitu dioten elkarte bat sortu, eta herritar mordo bat hor dabil, baratzea aitzakia duela, lurrarekiko lotura lekeitiarren artean itsatsarazi nahian. Belar madarikatuaren izena iraultzarazi. Herriarena den baratze horren utzikeria iraultzeari ekin ziotela bi urte bete dira aurt-
ten, eta, txukundu eta ederki jantzi ondoren, jendeari ireki dira bar-
tzea eta baratzezainak. Jai gozoa eratu dute: joaldunak, herriko nekazarien mozkinak...

Hortxe zegoen aipatutako txakolina. Aldameneko mahaian, pipermin (*Piper* sp.) eta kipula gorri (*Allium cepa*) artean hantxe, aulkitxoan, Mendexako Perliene-



Lekitto-belarra edo txomin-belarra, *Oxalis acetosella*.

ko Edurne Agirre. Piperminen minaren graduaz galdetu eta betirako lagun egin ginen. Hamahiru urte zitueneko kontuak berritu zizkigun, duela 69, tratura jaisten hasi zenean emakumeek buruan, sorkiaren gainean, edozer gauza nola garraiatzen zuten, otzara bezala pegarra, gerriaren hara-honako graziaren zipitzik ere galdu gabe, marinelen bat begira izanda ere... Sorkia, urteak nera-matzen hitz horren peskizan. ■



HANNA ZELENKO-CC BY SA

Erretura

Hiztegi ugaritan ageri da. Ereiteko dagoen soroan egiten den sua. Alorrean erretzen den zabor piloa. Soroetan egiten den belar, sasi eta arduien errea, gero errautsak lurrean barreiatzeko. Soroan batutako zakarrak erretzea. Zerbait erein behar den soroetan, pilan ipinita, belar txar eta zaborreriaz egiten den sua. Zaborreriarekin, lur eta guzti, pila egin eta sua ematen zaio. Horri esaten zaio erretura. Edo erroa, edo errelua.

Landu behar den saila izakitu edo zopizartu, eta kendutako belarrak lur eta guzti egur pixka batekin egindako suaren gainean erre. Erreturaren tokian lurra gorri geratuko da eta sail guztian banatzen da, errauts gisara, ongarri on askoa. ■



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.



ellauri
HOTELA

KILO TERDI TXOKOA

Kilo t'erdiko txuleta
Legatz-solomoa plantxan
(6 pertsona gutxienez, aurretik deituta)

Altzusta 38, 48144 ZEANURI
+34 946 317 888 | ellauri.com

Natura sentitu